

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Estatuarekin hitzarmena onartu da drogen konfiskatzeetatik Nafarroak 119.000 euro jaso ditzan

*Drogomenpekotasunen Foru Planaren baitako giza eta hezkuntza ekintzak egitera bideratuko dira*

Asteazkena, 2018.eko urriak 24

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Estatuarekin hitzarmena onartzea onetsi da Nafarroako Erkidegoak droga konfiskatzeetatik eratorritako 119.000 euro jaso ditzan, kopuru hori Drogomenpekotasunaren Foru Planaren ekintzak gauzatzeko bideratuko da.

Zehazki kopuru hori drogen kontsumoan gizarte ereduak aldatzeko helburuz gizarte eta hezkuntza ekintzak egitera bideratuko da.

Hitzarmena Barne Ministerioarekin (Drogen Estatuko Planaren Gobernu Deleazioa) eta Osasun Departamentuak 1999 urteaz geroztik sinatzen duen akordioaren prorroga da. Honek drogen trafikoaren konfiskazioak eta bestelako delituetatik eratorritako eta estatuarenak diren ondasunak arautzea du xede.

Osasun Departamentuak diru-kopuru horrekin egindako programen ebaluazioak eta egiaztapen zehatza jasoz txostena aurkeztuko du.